



EBAZPENA, 2021ko otsailaren 5koa Hezkuntza saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Horren bidez zehazten dira Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko eta Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, bai eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletan ere, hutsik dauden Maisu-maistren kidegoko behin-behineko lanpostuak.

Hezkuntza sailburuaren 2020ko urriaren 22ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren menpeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen artean estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2020ko azaroaren 4a),

Ondorioz, hau

XEDATU DUT:

Lehen artikulua.- Argitara ematea Ebazpen honen I. eranskinean Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetan hutsik dauden behin-behineko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko.

Bigarren artikulua.- Argitara ematea Ebazpen honen II. Eranskinean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletako ikastetxeetan hutsik dauden behin-behineko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko.

Hirugarren artikulua.- Publicar en el Anexo III de la presente Resolución las vacantes provisionales de los Centros públicos de Educación de Personas Adultas, a proveer en la convocatoria de concurso de traslados entre funcionarios docentes del Cuerpo de Maestros y Maestras.

Laugarren artikulua.- Interesatuek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute behin-behineko lanpostu hutsen zerrenda horren kontra, 5 laneguneko epean, Hezkuntza sailaren web orrian argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**